| **2. ERANSKINA: EUSKARA SAILA** | **ANEXO 2: ÁREA DE EUSKARA** |
|---|---|

| **2.2. ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEB GUNEA EUSKARAZ JARTZEN DITUZTEN ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK.** | **2.2. BASES ESPECÍFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A ENTIDADES QUE PONEN EN EUSKERA SUS RÓTULOS, IMAGEN CORPORATIVA Y SITIO WEB.** |
|---|---|
| **1. Xedea.** | **1. Objeto** |
| Deialdi honen xedea da 2009. urtean bere egoitzetako errotuluak, irudi korporatiboa eta web orria euskaraz oso-osorik edo ele bietan jartzen dituzten entitateei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. | Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las condiciones de concesión de subvenciones a entidades que, durante el ejercicio de 2009, ponen en euskera, íntegramente o bilingüe, los rótulos de sus sedes, su imagen corporativa o su sitio web. |
| **2. Onuradunak.** | **2. Personas beneficiarias** |
| Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak eskatu ditzakete helbide fiskala Arrasaten daukaten pertsona fisiko edo juridikoek, bai eta bere jarduera ekonomikoa Arrasateko udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek ere. | Las subvenciones que se regulan a través de estas bases, podrán ser solicitadas por las personas físicas o jurídicas que tengan su domicilio fiscal en Arrasate, o bien desarrollen su actividad económica, en locales ubicados en el municipio de Arrasate. |
| Programa honetako aplikazio eremutik kanpo daude: | Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente programa los siguientes supuestos: |
| a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastolak..., eta entitate publikoak. | a) Las entidades cuyo objeto sea la normalización del euskera –es decir, asociaciones de Euskera, euskaltegis, ikastolas,...- y las entidades públicas. |
| b) Enpresa handiak edo 50 langiletik gorako entitateak. | b) Las grandes empresas o entidades de más de 50 trabajadores |
| c) Aurreko hizkian aipatzen diren enpresa edo entitatekoak diren enpresak, haien kapital soziala %50etik gorakoa denean. | c) Las empresas cuyo capital social pertenezca en más del 50% a las empresas o entidades citadas en la letra b). |

| | |
|---|---|
| **3. Bete beharreko baldintzak.** | **3. Requisitos a cumplir** |
| Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko: | Para la percepción de la subvención se deberán cumplir los siguientes requisitos: |
| - **Edozein kasutan eta kasu guztietarako:** | - **En cualquier caso y para todos los supuestos:** |
| a) Testua zuzen egongo da idatzita euskaraz. | a) El texto deberá estar redactado correctamente en euskera. |
| b) Dirulaguntza jaso behar duen ekintza 2009an egindakoa izango da. | b) La actividad objeto de la subvención deberá haber sido realizada dentro del ejercicio 2009. |
| - **Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:** | - **Para los supuestos de rótulos e imagen corporativa:** |
| a) Ez edukitzea pertsonaren izen eta deitura bakarrik, kasu horretan ez baita emango ezelako dirulaguntzarik. | a) No contener únicamente el nombre y apellido de la persona, dado que en dicho supuesto no se concederá ningún tipo de subvención. |
| b) Testua euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izatea. | b) Tener el texto únicamente en euskera o bien en euskera y en castellano. |
| - **Web guneen kasuetan:** | - **Para los supuestos de sitios web:** |
| a) Arrasate herrian izatea helbide fiskala. | a) Tener el domicilio fiscal en Arrasate. |
| b) Web gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentaia gainerako hizkuntzen antzekoa izango da, behintzat. | b) Tener la página web únicamente en euskera o bien en euskera y en algún/os otro/s idioma/s. En el supuesto de concurrencia de varios idiomas, el porcentaje de texto en euskera deberá ser, cuanto menos, similar al del resto de idiomas. |
| **4. Aurkeztu beharreko agiriak.** | **4. Documentación a presentar** |
| Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak: | Junto con el modelo de solicitud, el solicitante deberá presentar la siguiente documentación: |
| - **Edozein kasutan eta kasu guztietan**: | - **En cualquier caso y para todos los supuestos**: |
| a) Egindako gastuen jatorrizko fakturak. | a) Facturas originales de los gastos realizados. |

| | |
|---|---|
| b) Oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan datorren moduan, egiaztatzea egunean dituela Administrazioko zerga obligazioak. | b) Acreditar, de la forma prevista en el artículo 7 de las bases generales, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Administración. |
| **- Errotuluen kasuetan:** | **- Para los supuestos de rótulos:** |
| a) Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia. | a) Documento o fotografía donde se recoge el nombre del rótulo |
| b) Udalak emandako hirigintza lizentzia. | b) La correspondiente licencia urbanística concedida por el Ayuntamiento. |
| **- Irudi korporatiboaren kasuetan:** | **- Para los supuestos de imagen corporativa:** |
| a) Entitateak egin edo berritutako elementu bakoitzaren ale bat. | a) Un ejemplar de cada elemento elaborado o renovado por la entidad. |
| **- Web guneen kasuetan:** | **- Para los supuestos de sitios web:** |
| a) Web gunearen helbidea. | a) Dirección del sitio web. |
| **5. Eskabideak aurkezteko epea** | **5. Plazo de presentación de solicitudes** |
| 2009 urtean burututako ekintzen eskabideak abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu behar dira. Hala ere, dirulaguntzaren xedea dena azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten denean epea bi hilabetetan luzatuko da, 2010eko otsailaren 28ra arte. Ondorio horietarako, eta beste dokumentazio baten faltan, kontsideratuko da faktura egiteko eguna bat datorrela faktura emateko egunarekin. | Las solicitudes de las acciones realizadas durante el año 2009 deberán ser presentadas antes del 31 de diciembre. Sin embargo cuando la acción objeto de subvención se realice entre el 1 de noviembre y el 31 de diciembre el plazo se amplia en 2 meses, hasta el 28 de febrero de 2010. A estos efectos, y a falta de otra documentación, se considerará que la fecha de realización coincide con la fecha de emisión de la factura. |
| Edozelan ere, dirulaguntza eskabideak aurkeztu daitezke Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik 30 laneguneko epean. | En todo caso, se podrán presentar solicitudes de subvención en el plazo de 30 días hábiles contado a partir de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. |

| | |
|---|---|
| **6. izapidetzeaz arduratzen den Administrazio Unitatea.** | **6. Unidad Administrativa encargada de la tramitación** |
| Euskararen administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak. | Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Euskera |
| **7. Eskabideak baloratzeko irizpideak.** | **7. Criterios de valoración de las solicitudes** |
| Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, edozein kasutan entitate bakoitzari kontzeptu bakoitzeko behin bakarrik emango zaio dirulaguntza: | Para el cálculo de las ayudas a conceder, se tendrán en cuenta los siguientes criterios, no obstante, solamente se concederá una subvención por concepto y entidad: |
| **7.1. Errotuluen kasuan** | **7.1. Para los supuestos de rotulación.** |
| a) Errotulua euskaraz bakarrik doanean, kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere du 300 €-ko dirulaguntza izango. | a) En el supuesto de que el rótulo sea puesto íntegramente en euskera, la subvención será del 50% del coste, con un límite máximo de subvención de 300€. |
| b) Errotulua euskaraz eta gaztelaniaz doanean, kostuaren %25 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 150 €-ko dirulaguntza izango du. Edozelan ere, lehentasuna izango du euskarazko testuak, kokalekuari, neurriei edota intentsitateari buruz. | b) En el supuesto de que el rótulo sea puesto en euskera y castellano, la subvención será del 25% del coste, con un límite máximo de 150€. En cualquier caso, se deberá dar prioridad al texto en euskera, respecto a la ubicación, medidas o bien intensidad. |
| **7.2. Irudi korporatiboaren kasuan.** | **7.2. Para los supuestos de imagen corporativa.** |
| 2.1. Kontzeptua: | 2.1 Concepto: |
| Programa honetan aurreikusten diren dirulaguntzak aplikatzeko, irudi korporatiboaren elementutzat joko ditu Udalak: | De cara a la aplicación de las ayudas previstas en el presente programa, el Ayuntamiento considerará como elementos de la imagen corporativa los siguientes: |
| a) Gutunazalak | a) Sobres |
| b) Orri idazpurudunak. | b) Hojas con membrete. |
| c) Bisita txartelak. | c) Tarjetas de visita. |
| d) Entitatea identifikatzeko zigilua. | d) Sello de identificación de la entidad. |

| | |
|---|---|
| e) Albarana, fakturak... | e) Albarán, facturas... |
| f) Ibilgailuak errotulatzea. | f) Rotulación de vehículos. |
| 2.2 Zenbatekoa: | 2.2 Cuantía: |
| a) Irudi korporatiboa euskaraz bakarrik doanean, kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 120 €-ko dirulaguntza izango du. | a) En el supuesto de que la imagen corporativa sea impresa íntegramente en euskera, la subvención será del 50% del coste, con un límite máximo de subvención será de 120€. |
| b) Irudi korporatiboa euskaraz eta gaztelaniaz doanean, dirulaguntza izango da kostuaren %25, eta gehienez ere izango du 60 €-ko dirulaguntza. | b) En el supuesto de que la imagen corporativa sea impresa en euskera y castellano, la subvención será del 25% del coste, con un límite máximo de subvención será de 60€. |
| **7.3. Web guneen kasuetan** | **7.3. Para los supuestos de sitios web** |
| a) Web orria euskaraz bakarrik eginez gero, kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 450 €-ko dirulaguntza izango du. | a) En el supuesto de confeccionar la página web íntegramente en euskera, la subvención será del 50% del coste, con un límite máximo de 450€. |
| b) Web orria euskaraz eta gaztelaniaz eginez gero edota euskaraz eta beste hizkuntza batean, kostuaren %40 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 300 €-ko dirulaguntza izango du. | b) En el supuesto de confeccionar la página en euskera y castellano o bien en euskera y otro/s idioma/s, la subvención será del 40% del coste, con un límite máximo de 300€. |
| **8. Aurrekontua.** | **8. Presupuesto.** |
| Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 5.000 € da, eta finantzatuko da “1.10.00.471.455.01.00 – Euskarako dirulaguntzak” kontu sailaren kontura. | El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 5.000€, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria “1.10.00.471.455.01.00 - Subvenciones Euskera”. |
| Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontuak betetzeko oinarri-arauetan aurreikusitako kredituak aldatzeko mekanismoen bidez. | Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación. |

| | |
|---|---|
| **9. Dirulaguntzak justifikatzea** | **9. Justificación de las subvenciones** |
| Oinarri-arau espezifiko hauetako 4. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak; dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira. | Las subvenciones serán justificadas mediante los documentos requeridos en el artículo 4 de las presentes bases específicas, a presentar conjuntamente con la solicitud de subvención. |
| **10. Ordainketa** | **10. Pago** |
| Dirulaguntza ordainketa bakar baten bidez emango da, justifikatu eta gero, behin dirulaguntza ematea erabaki eta gehienez hil bateko epean. | La subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, en el plazo máximo de un mes contado a partir de la adopción del acuerdo de concesión. |
| **11. Klausula gehigarria** | **11. Cláusula adicional** |
| Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |